



MUTRIKUKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzorua izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiarengatik, udalerri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Mutrikuko Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena** (Diputatu Kontseiluak 2006ko uztailaren 18an behin betiko onartua, eta GAOn 2006ko abuztuaren 7an argitaratua).

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.



2.- 011, 012, 013, 101, 102, 201, 211, 312, 313, 321, 421, 601, 801 eta 851 zona katastralen mugapenak aldatzen dira.

3.- 604, 605, 606, 607 eta 853 zona katastralak sortzen dira.

4.- Balio hauek eman zaizkie zona katastral berriei:

<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. klasif</u>	<u>(EK)Eraik Kos.</u>	<u>(BEE)Balio Erag.</u>	<u>(MP)Apark Moduloa.</u>
604	HIRITARGARRIA	510,86	335,36	10.818,22
605	HIRITARGARRIA	510,86	335,36	10.818,22
606	HIRITARGARRIA	510,86	423,52	9.015,18
607	HIRITARGARRIA	510,86	423,52	9.015,18
<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. Klasif</u>	<u>(BEI)Balio Erag</u>	<u>(MP) Apark Moduloa</u>	
853	HIRITARGARRIA	150,25	6.010,12	

5.- J azpizona katastrala esleitu zaie 604 eta 605 zona katastraleko kaleei edota kale tarteei, eta K azpizona katastrala 606 eta 607 zona katastraleko kaleei edota kale tarteei.

I. ERANSKINA

Lurzoru hiritarraren mugaketa plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.